

Energiaz asko hitz egin da 2022an, eta beste horrenbeste edo gehiago hitz egingo da heldu diren hilabeteetan. Izan ere, pandemiak eragindako zurrunbiloa apaltzen joan den neurrian – ez du ematen, baina birusak hor jarraitzen du –, lehenago ere ageri-agerikoak ziren eta egiturazkoak diren arazoak ate joka itzuli zaizkigu, gordin. Horien artean daude lehengaien agortzea, superpopulazioaren ajeak, baliabideen banaketa injustua eta, batez ere, planetaren berotze globala eta horren ondorioak, dagoeneko jasaten ari garenak.

«Ez dezagun fokua desbideratu, sistema energetikoa aldatzea da gakoa»; urrian, GARAn argitaratutako elkarrizketan, Antxon Olabe ekonomialariak argi utzi zuen non dagoen une honetan gizateriaren erronka nagusia. Ezin zaio krisi klimatikoari behar bezala erantzun energia ekoizteko eta kontsumitzeko moduak aldatzen ez baditugu, eta etorkizuna beltza izango dugu krisi klimatikoari behar bezala erantzuten ez badiogu. Ekuazioa erraza da, eta soluzioa, begi bistakoa. Hala ere, ez gara asmatzen ari.

MEZU ETSIGARRIA UKRAINAKO GERRAREN HARIRA

Xarm el-Xeikhen (Egipto) egindako COP27aren bezperan, Nazio Batuen Erakundeak ohartarazi zuen egungo politikak aldatu ezean mendearen bukaeran Lurraren tenperatura 2,8 gradu igoko dela, batez beste. Horrek sekulako hondamendia ekarriko luke. 2015ean, Parisen, nazioarteko gobernuburuek tenperaturaren igoera bi gradu gutxiagokoa izatea –eta, aukeran, 1,5 gradutan uztea– hitzartu zuten, baina ordutik hartutako neurriek ez dute xede hori erdiestea posible egingo, eta ondorioak ez dira nolanahikoak izango. Izan ere, adituek nabarmentzen dutenez, berotze prozesu horretan gradu-hamarren bakoitzak garrantzi handia izango du, eta gu adostutako helburua bikoizteko bidean goaz.

Gainera, norabidea aldatzeko zantzurik ez da ikusten. Horren adibide dira Egiptoko goi bileraren emaitza apala edo Ukrainako gerraren harira hartutako erabakiak. Errusia Ukrainaren aurka oldartu eta berehala, Europar Batasunak eta beste zenbait herrialdek Moskuren diru iturri nagusi diren erregaien gaineko debekua ezarri zuten. Aukera aproposa zirudien energia berriztagarrien aldeko bidean sakontzeko, baina horren ordezkari Europak gas eta petrolio ekoizle berriak (edo zaharberrituak) bilatu ditu, oso kaltegarria den ikatzaren erabilera indartu du eta gainbeheran zegoen eta orain “berdea” omen den energia nuklearraren aldeko apustua egin du.

«Sinesgarritasuna galdu nahi baduzu, hauxe da zehazki egin behar duzuna», esan zuen, ironia garratz puntu batekin, Phillipe Lamberts europarlamentari ekologistak uztailaren 6an Europako Parla-

ENERGIA, ARO NAHASI HONETAKO GORDIAR KORAPILOA

Iker Bizkarguenaga

Trantsizio energetikoa burutzea ezinbestekoa da bizi dugun krisi klimatiko eta ekosozialari erantzuteko, eta jakin badakigu helburu hori erdiestearren zer pauso eman behar ditugun. Praktikan, ordea, bidea malkartsua izaten ari da. Hauxe dugu, une honetan, erronka nagusia.

mentuak energia atomikoa eta gasa energia jasangarritzat jo zituenean. Eta ez zitzaion batere arrazoirik falta.

Egia da errusiar erregaien boikotak ataka larrian jarri dituela Europako ekonomia eta udazken honetan berogailuak ohi baino beranduago eta ohi baino gutxiago piztu dituzten herritarrrak, eta premia horiei azkar erantzun behar izan zaiela, baina auzi honetan zabaldu den mezua etsigarria da. Eta azken urteetan esandakoarekin kontrajarra, nahiz eta bigarren edo hirugarren botean, edukiontziak Qatarretik eta AEBtik heldutako gas likidotuarekin beteta zeudenean, berriz ere energia berriztagarriak bultzatzeko planak aipatzen hasi diren. Berandu, ordea; kalte politikoa eginda zegoen jadanik.

Hilabete hauetan jazotakoak agerian utzi du Europako instituzioek trantsi-



zio energetikoaren etxeko lanak egin gabe zituztela, eta orain, gerrak ezau-garritzen duen testuinguruan, esan daiteke litekeena dela 2030erako hel-buruak betetzea oso zaila izatea.

Baieztapen honek, dena den, ez du inor harrituko. Elkarrizketan, Olabek ezinbestekotzat jotzen zuen herrial-deen interesetik haragoko «Lurraren politika» bat egitea, baina ikusmira za-baltzea eskatzen duen gai honetan po-litikariak ohituta daude epe laburrera begirako erabakiak hartzera. Besteak beste, euren karguak arriskuan jartze-ko beldurragatik, jakin badakitelako trantsizio energetikoak politikoki ku-deatzen zailak izango diren neurriak hartzera behartuko dituela. Eta ia inork ez du prezio hori ordaindu nahi.

Horren orde, garapen teknologi-koan jarri dute askok itxaropena. Ere-

Hainbat herrialde Energiaren Kartaren Itunetik atera dira 2022an, horien artean Estatu espainola. Pauso garrantzitsua da, itun horrek enpresa pribatuei trantsizio energetikorako neurriak oztopatzeko gaitasuna ematen dielako

Ikatzak Lehenengo Iraultza Industrialak posible egin zuen, eta petrolioak Bigarrena, baina azken mende erdian eredu energetikoa gutxi aldatu da, eta %80 erregai fosilak erabiliz sortzen da. Iturri berriztagarriak indartzea ezinbestekoa da

du energetikoaren deskarbonizazioa erraz eta sakrifiziorik gabe egin ahal izateko sistemak edo tresnak asmatze-ko lasterketa batean sartu gara. Eta giro horretan kokatzen da, adibidez, Euro-pako Espazio Agentziak espazioan eguzki panelak ezartzeko egindako proposamena, edo hilabete honetan bertan AEBetako Energia Departamen-tuaren iragarpenak sortutako ikusmi-na. Adierazi duenez, herrialde horreta-ko zientzialariek fusio atomikoaren bidez (ez nahastu fusio eta fisio nu-klearra) energia sortzea lortu dute. As-kok mugarriztat jo dute aurkikuntza hau, karbonorik gabeko energia garbi eta mugagabea eskuratzeko bidea za-balduko lukeelako. Baina gai honekin oso zuhur jokatu behar da, iragarrita-koa egia izanda ere, eta garrantzirik kendu gabe, aurkikuntza hasiera fa-sean dagoelako, eta urte asko beharko liratekeelako energia iturri berri hori merkaturatzeko eta erabiltzen hasteko.

Teknologiak lagunduko digu, baina ezin dugu errezeta magikoren baten zain egon. Trantsizio energetikoak goi-tik beherako eta behetik gorako alda-ketak eskatuko ditu; ekoizpenean, itu-rri berriztagarrien aldeko apustu sendoa eginez, eta baita kontsumo ere-duan ere. Eta, noski, begirada luzeko proposamenak eta egitasmoak.

EUSKAL HERRIAN ERE EZTABAIDA BIZIA DAGO

Alde horretatik, aipatzekoa da EH Bil-duk egin duen ariketa. Koalizioak “Eus-kal Herriko eraldaketa ekosozial bate-rako Energia estrategia” aurkeztu zuen azaroan, auzi honetan duen ikuspegi estrategikoa laburbiltzen duena. «Ezin

diogu uko egin energia berriztagarrien sorrera demokratizatzeko lehiari», la-burbildu zuen Mikel Otero parlamen-tariak egunkari honetan.

Neurri batean dokumentu hori ai-tzindaria da, energia ereduez halako hausnarketa sakona egiten duen lehen indar politikoa delako, eta testuinguru berezian heldu da, Euskal Herrian energiaren gaineko eztabaida parez pa-re ireki baita. Irailaren 16an BC3ren es-kutik Bizkaia aretoa leporaino bete zuen hitzaldia gaiak dagoeneko sor-tzen duen interesaren adierazgarri da.

Eta normala da, kontsumitzen du-gun energiaren %80 erregai fosilek sortutakoa dela eta %85 kanpotik in-portatzen dugula kontuan hartzen ba-dugu. Erronka handia dugu esparru honetan, eta horri nola erantzun izan-go da, gure herrian ere, hurrengo ur-teetako eztabaida nagusietako bat.

Eta ez da samurra izango, Statkraftek Gipuzkoako zenbait herritan eraiki nahi dituen parke eolikoek sortutako eztabaidak erakusten duenez. Orain ar-tekoekin alderatuta, eredu desberdina proposatzen omen du enpresa norve-giarrak, udalen eta gizartearen beraren parte hartzean oinarrituta. Aurkezpe-nak egin izan dituzte, auzokideei egi-tasmoa bertatik bertara azaltzeko, bai-na badago begi onez ikusten ez duenik.

Ulertzekoa da etxetik gertu, inguru-ko mendietan, dozenaka metro dituz-ten haize errotak nahi ez izatea. Baina ulertu behar dugu, halaber, modu ba-tean edo bestean aterabidea bilatu behar zaiola Euskal Herriak energia ar-loan dituen gabeziei. Eta aterabide ho-rrek jasangarria izan behar du. Nola egiten da hori? Ez da galdera erraza, baina erantzuten saiatu beharko dira mahai gainean dauden proposamenen edo beste batzuen alde eta kontra dau-denak. Besteak beste, energia erruz kontsumitzen dugulako den-denok.

Energia da duda gabe aro katramila-tsu honetako gordiar korapiloa. Denok dakigu nola gainditu zuen Alexandro Handiak kondairazko erronka hura; ikusteko dago nork izango duen orain ezpata eskuan: betiko oligopolio bote-retsuek edo herriek eta herritarrek.



Egunsentia, Saint-Nazaire (Estatu frantsesa) hiritik gertu dagoen parke eolikoan. Energia iturri berriztagarrien aldeko apustua ezinbestekoa da trantsizio energetikoa arrakastaz egiteko. Loïc VENANCE | AFP